

Euskarazko izen arrunten proposamena Eurasiako
41 txori espezierentzat

Europako hegaztien zerrenda osatzeko proposamenak



**EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI**

Asier Sarasua, Aitor Galarza, Maite Laso, Aitor Leiza,
Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur
2024ko ekainean
Euskal Batzorde Ornitologikoa

Izen arrunten proposamena Eurasiako 41 txori espezierentzat

Europako hegaztien zerrenda osatzeko proposamenak

Europan inoiz ikusi diren hegazti guztien izendegia osatzeko bidean azkenaldian egiten ari garen lanaren jarraipena da ondorengoa. Beste 41 espezierentzat proposamena aurkezten dugu txosten honetan.

Espezie bereziak dira, gehienak Europan oso gutxitan ikusi direnak, kasu askotan asiar eta amerikarrak eta euskarazko izen arruntik jaso ez dutenak. Hala ere, izendatzeko orduan ez dute, oro har, zailtasun berezirik, izen generikoa dagoeneko zehaztuta daukatelako euskaraz eta espezifikatzailea nahiko homogoneoa delako inguruko hizkuntza gehienetan. Hartara, ohar berezirik ezean, inguruko hizkuntza nagusietan zehaztutako bideari jarraitu diogu, izen zientifikoarekin eta nazioarteko izendegiarekin kohererentzia mantentze aldera.

Izenak proposatzeko orduan “*Animalien euskarazko izenak finkatzeko oinarrizko irizpideak*” dokumentuan zehazten diren jarraibideak jarraitu ditugu.

Ez-paseriformeak

- *Anarhynchus asiaticus* (Charadriidae) - **txirritxo kaspiar** (Chorlitejo del Caspio ES, Caspian plover EN, Pluvier asiatique FR, Corriol asiàtic CA).
- *Anarhynchus atrifrons* (Charadriidae) - **txirritxo tibetar** (Chorlitejo mongol tibetano, Tibetan sand plover, Pluvier du Tibet, Corriol del Tibet)
- *Anarhynchus veredus* (Charadriidae) - **txirritxo ekialdetar** (Chorlito asiático grande, Oriental plover, Pluvier oriental, Corriol oriental)
- *Charadrius mongolus* (Charadriidae) - **txirritxo mongoliar** (Chorlitejo mongol chico, Lesser Sand Plover, Pluvier de Mongolie, Corriol de Mongòlia)
- *Anarhynchus leschenaultii* (Charadriidae) - **Leschenaultii txirritxo** (Chorlitejo mongol grande, Greater Sand Plover, Pluvier de Leschenault, Corriol de Leschnault)
- *Charadrius semipalmatus* (Charadriidae) - **txirritxo erdipalmatu** (Chorlitejo semipalmado, Semipalmated Plover, Pluvier semipalmé, Corriol semipalmat)
- *Charadrius vociferus* (Charadriidae) - **kildir txirritxo** (Chorlitejo culirrojo, Killdeer, Pluvier kildir, corriol cua-roig)
- *Chroicocephalus cirrocephalus* (Laridae) - **antxeta burugris** (Gaviota cabecigrís, Grey-headed Gull, Mouette à tête grise, Gavina capgrisa)
- *Larus heuglini* (Laridae) - **Heuglin kaio** (gaviota de Heuglin, Larus heuglini, Heuglin's gull)
- *Larus schistisagus* (Laridae) - **kaio kamtxatkar** (Gaviota de Kamchatka, Slaty-backed Gull, Goéland à manteau ardoisé, Gavià de Kamtxatka)

- *Calidris acuminata* (Scolopacidae) - **txirri buztanzorrotz** (Correlimos acuminado, Sharp-tailed Sandpiper, Bécasseau à queue pointue, Territ acuminat)
- *Calidris mauri* (Scolopacidae) - **txirri alaskar** (Correlimos de Alaska, Western Sandpiper, Bécasseau d'Alaska, Territ d'Alaska)
- *Calidris pusilla* (Scolopacidae) - **txirri erdipalmatu** (Correlimos semipalmeado, Semipalmated sandpiper, Bécasseau semipalmé, Territ semipalmat)
- *Calidris subminuta* (Scolopacidae) - **txirri behatz-luze** (Correlimos dedilargo, Long-toed stint, Bécasseau à longs doigts, Territ menuet sibérià)
- *Limosa haemastica* (Scolopacidae) - **Hudson kuliska** (Aguja café, Hudsonian godwit, Barge hudsonienne, Tètòl de Hudson)
- *Tringa brevipes* (Scolopacidae) - **kuliska siberiar** (Playero siberiano, Grey-tailed tattler, Chevalier de Sibérie, Xivita siberiana)
- *Tringa incanus* (Scolopacidae) - **kuliska alderrai** (Playero de Alaska, Wandering tattler, Chevalier errant, Xivita erràtica)
- *Tringa semipalmata* (Scolopacidae) - **kuliska erdipalmatu** (Playero aliblanco, Willet, Chevalier semipalmé, Gamba alanegra)
- *Geopelia cuneata* (Columbidae) - **usapal diamantekara** edo **diamante-usapal** (Tortolita Diamante, Diamond Dove, Géopélie diamant, Tortoreta diamant).
- *Meleagris gallopavo* (Phasianidae) - **indioilar arrunt** (Pavo, Guajolote gallipavo, Wild Turkey, Dindon sauvage, Gall dindi comú)
- *Psittacula eupatria* (Psittacidae) - **papagai alexandriar** (Cotorra alejandrina, Alexandrine Parakeet, Perruche alexandre, Cotorra alexandrina)
- *Otus brucei* (Strigidae) - **apo-hontz argi** (Autillo persa o autillo pálido, Pallid scops owl, Petit-duc de Bruce, Xot de Bruce)
- *Otus cyprius* (Strigidae) - **apo-hontz zipretar** (Autillo chipriota, Cyprus scops owl)

Paseriformeak

- *Hippolais languida* (Acrocephalidae) - **sasi-txori ilaun** (Zarcero lánguido, Upcher's warbler, Hypolaïs d'Upcher, bosqueta d'Upcher)
- *Hippolais olivetorum* (Acrocephalidae) - **olibadietako sasi-txori** (Zarcero grande, Olive-tree warbler, Hypolaïs des oliviers, Busqueta dels olivers)
- *Prinia gracilis* (Cisticolidae) - **prinia segail** (Prinia grácil, Graceful prinia, Prinia gracile, Prinia grácil)
- *Prinia lepida* (Cisticolidae) - **prinia fin** (Prinia delicada, Delicate Prinia, Prinia délicate, Prinia delicada)
- *Emberiza buchanani* (Emberizidae) - **miarritz gris** (Escribano cabecigrís, Grey-necked bunting, Bruant à cou gris, Sit capgrís)
- *Pyrrhula murina* (Fringillidae) - **Azoreetako gailupa** (Camachuelo de las Azores, Azores Bullfinch, Bouvreuil des Açores, Pinsà borroner de les Açores)
- *Lanius schach* (Laniidae) - **antzandobi isats-luze** (Alcaudón schach, Long-tailed shrike, Pie-grièche schach, Escorxador cuallarg)
- *Ficedula albicilla* (Muscicapidae) - **taigako euli-txori** (Papamoscas de la taiga, Taiga flycatcher, Papamosques de taigà)

- *Ficedula semitorquata* (Muscicapidae) - **euli-txori lepokoerdidun** (Papamoscas semiacollarado, Semicollared Flycatcher, Gobe-mouche à demi-collier, Papamosques de mig collar)
- *Ficedula speculigera* (Muscicapidae) - **Atlaseko euli-txori** (Papamoscas del Atlas, Atlas pied flycatcher, Gobe-mouche de l'Atlas, Papamosques de l'Atlas)
- *Oenanthe pleschanka* (Muscicapidae) - **buztanzuri pinto** (Collalba pía, Pied wheatear, Traquet pie, Còlit pitnegre)
- *Sinosuthora webbiana* (Paradoxornithidae) - **papagai-tximutx mantxuriar** (Picoloro de Webb, Vinous-throated parrotbill, Paradoxornis de Webb, Paradoxornis de Webb)
- *Phylloscopus coronatus* (Phylloscopidae) - **txio koroatu** (Mosquitero coronado, Eastern crowned warbler, Mosquiter coronat)
- *Phylloscopus griseolus* (Phylloscopidae) - **txio pamirtar** (Mosquitero del Pamir, Sulphur-bellied warbler, Mosquiter del Pamir)
- *Phylloscopus plumbeitarsus* (Phylloscopidae) - **txio hankagris** (Mosquitero patigris, Two-barred warbler, Mosquiter camagrís)
- *Phylloscopus sindianus* (Phylloscopidae) - **mendi-txio** (Mosquitero montano, Mountain chiffchaff, Pouillot montagnard, Mosquiter muntanyenc)
- *Phylloscopus tenellipes* (Phylloscopidae) - **txio hanka-argi** (Mosquitero paticlaro, Pale-legged leaf warbler Mosquiter camaclar)
- *Vireo olivaceus* (Vireonidae) - **vireo begigorri** (Vireo ojirrojo, Red-eyed Vireo, Viréo aux yeux rouges, Vireó ullvermell)

Zuzentzaileen ekarpenak eta oharrak

Dokumentu honen lehenengo bertsioa Asier Sarasuak ondu zuen eta, ondoren, beste 8 txorizale euskaldunen artean banatu eta aztertu da: Aitor Galarza, Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur, Maite Laso, Miel Mari Elozegi eta Aitor Leiza.

Hauek izan dira eztabaidagai izan ditugun puntu nagusiak:

- *Anarhynchus veredus* (Charadriidae) - **txirritxo ekialdetar**. 'txirritxo oriental' proposatu zen hasiera batean, baina 'txirritxo ekialdetar' hobetsi da.
- *Anarhynchus leschenaultii* (Charadriidae) - **Leschenaultii txirritxo**. Izen deskriptibo baten bila aritu ondoren, eponimoa onartu behar izan dugu, FR eta CA jarraituz.
- *Charadrius semipalmatus* (Charadriidae) - **txirritxo erdipalmatu**. "Uhandre palmatu" daukagu eredurako. "Hatz palmatu" eta "behatz palmatu" terminoak ere jasota daude Euskaltermen. Bide egokia ematen du antzeko izena duten hainbat hegazti espezierentzat. Zerrenda honetan hiru ditugu, txirri, txirritxo eta kuliska erdipalmatuak.
- *Charadrius vociferus* (Charadriidae) - **kildir txirritxo**. "txirritxo ipurgorri" ere izan zitekeen. Hala ere, izen zientifikoak (vociferus) bere dei bereizgarria gogorarazten digu (kil-diiiiirrrr). Ipar Ameriketara txirritxo ezagunenetakoa bat da espezie hau eta ingelesez "killdeer" izenez ezagutzen da. Frantsesez, alemanez eta nederlandez ere izendapen hori hobetsi denez, euskaraz ere aukera berdinarekin alde egin dugu. Ahoskatzeko zaila izan daitekeela ere aipatu da, baina izen onomatopeikoen eta tokiko izendapenen aldeko hautua ere badago irizpide nagusietan, horrelako beste zenbait ere hobetsi izan dira euskaraz (nene branta, hadada ibisa) eta, azkenean, izen onomatopeiko eta nazioartekoaren alde egin dugu.
- *Calidris subminuta* (Scolopacidae) - **txirri behatz-luze**. Soinu-multzo gaiztoetan marratxoa erabiltzea gomendatzen da.
- *Geopelia cuneata* (Columbidae) - **usapal diamantekara**. Euskaltermek "uso diamantekara" dakar. Hegazti honen itxura eta morfologia aztertuta, gehiago ematen du "usapal" bat (inguruko hizkuntzetan jarraitu duten bidea). Bestalde, "diamante-usapal" ere izan liteke (antzeko hainbat eredu ditugu animalien izen arruntetan). Hala ere, arau orokor moduan daukagu, ahal dela, lehendik adostutako izenak ez aldatzea, horretarako arrazoi nabarmenik ez badago eta, beraz, UZEIk eta Euskaltermek hobetsitako "diamantekara" espezifikatzailea utzi dugu, beste aukera ere existitzen dela aiantzi gabe.
- *Psittacula eupatria* (Psittacidae) - **papagai alexandriar**. Alexandro Handiaren omenez ezarritako izena da, inguruko hizkuntza guztietan berbera.
- *Hippolais languida* (Acrocephalidae) - **sasi-txori ilaun**. Zalantza izan da ea izen deskriptiboa hobetsi edo EN, FR eta CA eponimoaren alde egin. Galarzak eponimoaren aldeko apustua egin du. Ahal dela izen deskriptiboak hobesten ditugunez, oraingoz "sasi-txori ilaun" utzi dugu proposamen nagusi gisa, izen zientifikoan oinarrituta. Latinezko eta gaztelaniazko "languida" hori adierazteko hainbat sinonimo ditugu euskaraz: ahul, makal, hildu, ilaun, motel, makal, erkin, pattal.... Bat aukeratu beharra dago; guk proposamen bat egin dugu, baina beste edozein ere izan zitekeen.
- *Emberiza buchanani* (Emberizidae) - **miarritz gris**. Izena egokia iruditu zaigu guztioi, 'miarritz' generikoarekin oso antzeko diren 3-4 espezie bateratzeko aukera eskaintzen digulako. Hala ere, horrela bada, "berdantza miarritzari" izena egokitu beharko genioke.
- *Ficedula semitorquata* (Muscicapidae) - **euli-txori lepokoerdidun**. Kontzeptua garbia da. Euskarazko izenaren forma da ondo begiratu eta zehaztu behar dena. Oraingoz "lepokoerdidun" hobetsi dugu, lehendik ere badugulako eredu bat: *Accipiter collaris* (semi-collared hawk), "gabirai lepokoerdidun". Martin Rezolak adierazi du agian "erdilepokodun" ere izan daitekeela.

- *Sinosuthora webbiana* (Paradoxornithidae) - **papagai-tximutx mantxuriar**. "papagai-tximutx" generikoa asmatu dugu, genero honen itxura eta inguruko hizkuntzetako izenak kontuan izanik. 'tximutx' izena oso ezaguna da Gipuzkoa-Bizkaian; kasu honetan, mokoaren formarengatik eta inguruko hizkuntzei jarraiki, "papagai-tximutx" sortu dugu *Sinosuthora* generoa bereizteko. LYNX argitaletxeak eskatutako zerrendarako "mantxuriar" espezifikatzailea gehitu diogu espezie honi, baina aztertzea izan liteke hori ere.

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientzia-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Miel Mari Elozegi (Nafarroako Gobernua).

Euskal Batzorde Ornitologikoa

